

Liburuen argitalpen-produkzioaren estatistika
2021. urtea

**Nafarroako argitalpen-produkzioa % 31,8 igo zen
2021. urtean, 2020. urtearekin alderatuta**

**Tituluen % 81,6 gaztelaniaz argitaratu ziren, eta
% 8,4 euskaraz. Haien atzetik, argitalpen
elebidunak geratu ziren, gaztelaniaz eta euskaraz
(% 3,7)**

2023ko abenduaren 1a


Liburuen argitalpenak % 34,5 egin zuen gora, eta liburuxkenak, % 7,3,
aurreko urtearekin alderatuta

ARGITALPEN-PRODUKZIOA

2021. urtean, 1.450 titulu berri argitaratu ziren Nafarroan; haietatik, 1.332 liburuak izan ziren, eta 118 liburuxkak. Alegia, aurreko urtearekin alderatuta, argitaratutako tituluen kopuruak % 31,8 egin zuen gora; liburu argitaratuak % 34,5 igo ziren, eta liburuxkak % 7,3.

1. GRAFIKOA

Argitaratutako tituluak (liburuak eta liburuxkak) (2015-2021)



Iturria: Nastat, Kultura Ministerioaren eta INEren 2021eko Argitalpen Produkzioaren Estatistikan oinarrituta.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00

2021. urtean, serieko argitalpen-produkzioirik handiena erregistratu zen Nafarroan (1.450), eta hautsi egin zen ordura arteko egonkortasuna, argitaratutako 927-1.153 aleko tartean zegoena. Urtero argitaratutako liburu eta liburuxken ehunekoak zifra egonkor samarretan jarraitzen du, eta, azken urteotan, proportzioa antzekoa izan da (% 90 liburuak eta % 10 liburuxkak).


GAIK ETA HIZKUNTZAK

Gizarte Zientziak izan ziren Nafarroako argitalpen-produkzioaren tematika nagusia; 709 titulu argitaratu ziren 2021ean. Bigarren gai nagusia literatura, historia eta literatura-kritika izan zen (229 titulu), eta hirugarrena, berriz, Geografia eta Historia (144 titulu).

Bestalde, Nafarroan argitaratutako tituluak gaztelaniaz argitaratu ziren nagusiki (% 81,6) eta, bigarrenik, euskaraz (% 8,4). Haien atzetik, argitalpen elebidunak geratu ziren, gaztelaniaz eta euskaraz (% 3,7).

2. GRAFIKOA

Argitaratutako tituluaren ehunekoak, hizkuntzaren arabera (2015-2021)



Iturria: Nastat, Kultura Ministerioaren eta INEren 2021eko Argitalpen Produkzioaren Estatistikan oinarrituta.

Azken urte horretan, gora egin zuen gaztelaniaz, euskaraz eta beste hizkuntza eta konbinazio batzuetan argitaratutako tituluaren ehunekoak, eta behera egin zuen titulu elebidunen (gaztelaniaz eta euskaraz) argitalpenak.



INFORMAZIO GEHIAGO

Nastat

Argitalpen-produkzioaren estatistika. 2021. urtea.



CONTACTO | HARREMANETARAKO

estadistica@navarra.es

848 42 34 00